<p>Erakundeen % 100ek GK baten (gertakari kaltegarria) aurreko jarduketa-gomendioei buruzko gida korporatiboa ezarri du.</p>	<p>100%</p>	<p>El 100% de las organizaciones han incorporado la Guía Corporativa sobre recomendaciones de actuación ante un EA (efecto adverso).</p>



HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>4.4.3. Pazienteen zalantzarik gabeko identifikazioa: Pazientea identifikatzeko prozesuak optimizatzeko neurrien ezarpenean aurrera egitea; bereziki, haien ezaugarriak direla-eta besoko identifikatiboa jartzea aukerarik onena ez den arloen kasuan (adibidez, epe ertain-luzeko ospitalizazio psikiatrikoa eta amatasunak).</p> <p>Epe ertain-luzeko paziente psikiatrikoa identifikatzeko metodo bat zehaztu eta paziente horientzat estigmatizazio-faktore ez diren sistemak ezartzea.</p> <p>Adierazlea:</p> <p>Behar bezala identifikatutako paziente ospitaleratuen ehunekoa (paziente psikiatrikoak falta dira; horien kasuan, sistema biometrikoaren bitartez identifikatzea erabaki da).</p> <p>4.4.4. Pazienteak beren segurtasunean inplikatzeta: Pazienteak pazientearen segurtasunaren esparruan sensibilizatzea eta prestakuntza ematea eta prestakuntzaren ondoren detektatzen dituzten segurtasun-gorabeheren komunikazioan inplikatzeta.</p> <p>Komunitatean antolatuta dauden eragile edo sareak identifikatzea (pazienteen elkarteak, osasun-lokalak, sareak...) eta beren indarraz baliatzea herritarrengan segurtasunaren kultura zabaltzeko.</p> <p>Herritarrek segurtasun-gorabeherak jakinarazteko sistema bat diseinatzea, paperekoa eta/edo elektronikoa.</p> <p>Adierazlea:</p> <p>Segurtasunaren kultura sustatzeko pazienteen elkarte edo federazioekin elkarlan-ekintzak ezarri dituzten erakundeen ehunekoa.</p> <p>Lehen pauso gisa, pazienteei eta herritarrei, oro har, zuzenduko zaizkien sensibilizazio-eta informazio-ekintzak finkatzeko lantalde bat eratu da; paziente-elkarteek, PEAZeko arduradunek, Osasun Eskolak, Parte Hartuk, Bioefek eta Osasun Publikoko eta Pazientearen Segurtasuneko Programen Koordinazioko talde korporatiboko kideek aktiboki parte hartzen dute bertan.</p> <p>4.4.5. Medikazioa bateratzea: Medikazioa bateratzeko programa korporatibo bat garatzea, Farmazia Zerbitzuarekin eta Osasun Informazioa eta Kudeaketa Zuzendariordetzarekin lankidetzan.</p>	<p>73%</p>	<p>4.4.3. Identificación inequívoca de los pacientes: Avanzar en la implantación de medidas que optimicen los procesos de identificación del paciente, especialmente en aquellas áreas en las que, por sus propias características, el brazalete identificativo no resulta la mejor opción, como son, la hospitalización psiquiátrica de media-larga estancia y las maternidades.</p> <p>Establecer un método de identificación del paciente psiquiátrico de media-larga estancia implantando sistemas que no supongan un factor de estigmatización para estos pacientes.</p> <p>Indicador:</p> <p>Porcentaje de pacientes hospitalizados debidamente identificados (Faltan los pacientes psiquiátricos en los que se ha decidido que la identificación se realizará a través de sistema biométrico).</p> <p>4.4.4. Implicación de los pacientes en su seguridad: Sensibilización y formación de los pacientes en el ámbito de la Seguridad del paciente implicándolos, tras la formación, en la comunicación de los incidentes de Seguridad que detecten.</p> <p>Identificar los agentes o redes que ya están organizados en la comunidad (asociaciones de pacientes, locales de salud, redes, etc...) y aprovechar su potencial para extender la cultura de Seguridad a la ciudadanía.</p> <p>Diseñar un sistema de notificación de incidentes de Seguridad por la ciudadanía, en formato papel y/o electrónico.</p> <p>Indicador:</p> <p>Porcentaje de organizaciones que han establecido acciones de colaboración con asociaciones o federaciones de pacientes para promover cultura de Seguridad.</p> <p>Como primer paso, se ha creado un grupo de trabajo en el que participan activamente Asociaciones de pacientes, responsables del SAPU, Osasun Eskola, Parte Hartu, Bioef y miembros del equipo corporativo de Coordinación de Programas de Salud Pública y Seguridad del Paciente para establecer las acciones de sensibilización e información que se van a dirigir a los pacientes y a la ciudadanía en general.</p> <p>4.4.5. Conciliación de la medicación: Desarrollar un programa corporativo de conciliación de la medicación, con la colaboración del Servicio de Farmacia y la Subdirección de Información Sanitaria y Gestión.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Sendagaiak bateratzeko programa korporatiboaren garapena altaren unetik abiatuta hasiko da, kontuan izanda, programak arrakasta izango badu, ospitaleratzearen aurretik prestatu behar dela.</p> <p>Adierazlea:</p> <p>Sendagaiak bateratzeko programa bat izatea pazientearen asistentzia-trantsizioetarako, berrikusita eta eguneratuta.</p> <p>4.4.6. Erradiazio ionizatzailea erabiltzen duten diagnosi-proben preskripzioa optimizatzea: Probak egiteko protokoloak aplikatzea sustatzea, pazientearen adinaren, eremuaren eta azterketaren indikazioaren arabera berrikusiak, bereziki Pediatrian.</p> <p>Preskriptoreei pazienteek jaso dituzten dosi efektiboei buruz ematen zaien informazioa hobetzea, mamografietako datuak Osabide Globaletako historial dosimetricora sartzen bukatzea eta erradiologia interbentzionistako dosien datuak sartzen hastea.</p> <p>Adierazlea:</p> <p>Erakundeen % 100ek probetan, OTAetan eta mamografietan erabilitako dosiak ustiatu ditzakete. Erradiologia interbentzionistako datuak ustiatu ahal izatea falta da.</p> <p>4.4.7. Osasun-laguntzarekin lotutako infekzioen prebentzioa eta kontrola: Osasun-laguntzarekin lotutako infekzioen (OLLI) kopurua murriztea, hainbat lan-ildo, programa eta proiekturen bidez.</p> <p>INOZ planeko planei eta programei jarraipena ematea; horien artean, besteak beste, INOZ zaintza-sistema, infekzio nosokomialak zaintzeko, prebenitzeko eta kontrolatzeko plana (INZPKP), eskuetako higieena eta gernu-kateterrarekin lotutako gernubideetako infekzioen murrizketa (GBI) daude.</p> <p>Adierazleak:</p> <p>Kolon eta ondesteko kirurgiarekin eta aldaka eta belauneko kirurgia protesikoarekin lotutako zauri kirurgikoen infekzio-intzidentziari buruzko azterketak urte osoan egiten dira. Maiatzean, urteko infekzio nosokomialen prebalentziaren azterketa (EINPA) egin da.</p>		<p>Se iniciara el desarrollo del programa corporativo de conciliación de la medicación por el momento del alta, teniendo en cuenta que para que sea exitoso ésta debe prepararse desde antes del ingreso.</p> <p>Indicador:</p> <p>Existencia de un programa de conciliación de la medicación en las transiciones entre ámbitos asistenciales del paciente revisado y actualizado.</p> <p>4.4.6. Optimización en la prescripción de pruebas diagnósticas que utilizan radiación ionizante: Promover la aplicación de protocolos de realización de pruebas revisados en base a la edad del paciente, área e indicación de estudio, especialmente en Pediatría.</p> <p>Mejorar la información aportada a los prescriptores sobre las dosis efectivas recibidas por los pacientes finalizando la incorporación de los datos de las mamografías al historial dosimétrico de Osabide Global e iniciar la incorporación de los datos de dosis de la radiología intervencionista.</p> <p>Indicador:</p> <p>El 100% de las organizaciones pueden explotar las dosis empleadas en las pruebas, TAC y Mamografías. Pendiente poder explotar los datos de la radiología intervencionista.</p> <p>4.4.7. Prevención y Control de las Infecciones relacionadas con la Asistencia Sanitaria: Disminuir las infecciones relacionadas con la asistencia sanitaria (IRAS) a través de diferentes líneas de trabajo, programas y proyectos.</p> <p>Dar continuidad a los planes y programas del Plan INOZ entre los que se encuentran, el sistema de vigilancia INOZ, el plan de vigilancia, prevención y control de la infección nosocomial (PVPCIN), Higiene de manos y la reducción de infecciones del tracto urinario (ITU) asociadas a catéter urinario.</p> <p>Indicadores:</p> <p>Los estudios de incidencia de infección de herida quirúrgica de cirugía colorrectal y cirugía protésica de cadera y rodilla se realizan de manera continuada a lo largo de todo el año. En mayo se ha realizado el estudio de prevalencia de infección nosocomial anual (EPINE).</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Prestakuntza izeneko prestakuntza-zerbitzu korporatiboarekin batera, gernukateterrarekin lotutako gernubideetako infekzioak murrizteko protokoloa ezartzen laguntzeko online ikastaro bat egiten ari da.</p> <p>Osakidetzak, beste urte batez, osasun-arretako Eskuetako Higienearen Mundu Egunarekin bat egin du; maiatzaren 5ean egin ohi da urtero, OMEk bultzatuta. Aurten, «Zeure esku dago osasun-arretan sepsia ekiditea» lelopean, zerbitzu-erakunde guztiek profesionalak, pazientek eta senideak eskuetako higienearen inguruko jarduerak hobetu eta egokiak izateaz eta, hala, infekzioak zabaltzea saihestez, kontzientziatzeko hainbat ekimen jarri dituzte martxan.</p> <p>INZPKPren (infekzio nosokomialak zaintzeko, prebenitzeko eta kontrolatzeko plana) ebaluazio bat programatzen ari da, eta tresna informatikoa berraztertzen eta eguneratzen.</p> <p>4.4.8. Kirurgia segurua: Beren zerbitzu-zorroan kirurgia handia barne hartzen duten Osakidetzako erakunde guztietan Kirurgiaren Segurtasuna Egiaztatzeko Zerrendaren (KSEZ) erabilera egokia sustatzea, baita KSEZen erabilera ebaluatzea eta jarraipena egitea bultzatzea ere.</p> <p>Zerbitzu kirurgikoetan autoebaluazioak egitea bultzatzea, emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko eta, horren ondoren, inplikatura dauden profesionalak berrelikatzea.</p> <p>Adierazlea:</p> <p>Zerbitzu-erakunde guztiek Kirurgiaren Segurtasuna Egiaztatzeko Zerrendaren (KSEZ) erabilera egokiaz sentsibilizatzeko saioak egin dituzte kirurgia-zerbitzuekin.</p> <p>4.4.9. Haurduntza, erditze eta puerperioko laguntza-prozesuko segurtasuna: Haurdunaldi, erditze, puerperio eta jaioberriaren laguntza-prozesuko segurtasuna areagotzea ingurune seguru batean, balizko kontrako gertakariak murriztearren, haurdunaldi, erditze eta puerperioko prozesuaren fisiologia sustatu eta aktibatuta.</p> <p>Haurdunaldi, erditze, puerperio eta jaioberrien inguruko lantaldeak bultzatzea eta aktibo izatea, laguntza-irizpideak bateratu eta zerbitzu-erakunde guztientzako jardunbide-protokolo bakarretan biltzeko.</p>	<p>100%</p>	<p>Se está realizando junto con el servicio corporativo de Formación, Prestakuntza, un curso online que dé soporte a la implantación del protocolo para reducir las infecciones del tracto urinario asociadas a catéter urinario.</p> <p>Osakidetzak un año más, se ha sumado a la Jornada Mundial de la Higiene de Manos en la atención sanitaria impulsada por la OMS y que se celebra cada 5 de Mayo. Este año, bajo el lema “Está en tus manos prevenir la sepsis en la atención sanitaria” todas las organizaciones de servicios han puesto en marcha diferentes iniciativas dirigidas a concienciar a profesionales, pacientes y familiares de la necesidad de mejorar y mantener adecuadas prácticas sobre la higiene de las manos y así evitar la propagación de las infecciones.</p> <p>Se está planificando una próxima evaluación del PVPCIN (Plan Vigilancia, Prevención y Control de Infección Nosocomial) y se está revisando y actualizando la herramienta informática.</p> <p>4.4.8. Cirugía Segura: Potenciar la correcta utilización del Listado de Verificación y Seguridad Quirúrgico (LVSQ) en todas las organizaciones de servicios que incluyan dentro de su cartera de servicios la cirugía mayor impulsando la evaluación y el seguimiento de la utilización del LVSQ.</p> <p>Impulsar la realización de autoevaluaciones en los servicios quirúrgicos que les permitan hacer un seguimiento y evaluación de los resultados, con la consiguiente retroalimentación a los profesionales implicados.</p> <p>Indicador:</p> <p>Todas las organizaciones de servicios han realizado sesiones de sensibilización sobre la adecuada utilización del listado de verificación de seguridad quirúrgica (LVSQ) con los servicios quirúrgicos.</p> <p>4.4.9. Seguridad en el proceso asistencial Gestación-Parto-Puerperio: Incrementar la seguridad del proceso asistencial gestación, parto, puerperio y recién nacido en un entorno de seguridad para minimizar los posibles eventos adversos impulsando y activando la fisiología del proceso gestación, parto y puerperio.</p> <p>Impulsar y mantener activos los grupos de trabajo de embarazo, parto, puerperio y recién nacido con el fin de unificar criterios asistenciales que se recojan en protocolos de actuación únicos para todas las organizaciones de servicios.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Protokolo hauek gauzatu dira:</p> <p>Puerperioko arretako protokoloa, zeinak honako prozedura hauek biltzen dituen:</p> <p>Erditze arrunteko eta zesarea-kasuetarako analgesia.</p> <p>Sendagaiekin lotutako eragin kaltegarriak.</p> <p>Erditze ondoko anemia.</p> <p>Altako informazioa – Alerta-zantzuak eta amaren eta JBaren (jaioberria) autozaintza.</p> <p>JBaren arretaren segurtasuna ama-hauren arretaren esparruan, zeinak honako prozedura hau biltzen duen:</p> <p>JBaren identifikazioa eta zaintza</p> <p>Jaioberria elikatzeko protokoloa, zeinak JB osasuntsuaren erditzeko eta puerperioko arreta biltzen duen.</p> <p>4.4.10. Pazientearen segurtasuna larrialdietako zerbitzuetan: Larrialdietako eremuetako segurtasuna jorratzea, ospitaleko larrialdi eta Lehen Mailako Arretako zerbitzuak barne hartuta.</p> <p>Definitutako estrategia garatzeko lan-plangintza adostu bat finkatzea.</p> <p>Larrialdietako eremuan segurtasuneko erreferenteak izatearen abantailak aztertzea.</p> <p>Adierazlea:</p> <p>Ildo horretarako talde erreferente korporatibo bat osatu da. Landu beharreko lehentasunak adostu eta azpitaldeen lana abiatu da.</p> <p>4.4.11. Pazientearen segurtasuna zainketei dagokienez: PEU-UPP Adi! (PEU, presio-ultzerak) eta Eroriko EZ dokumentuetan jasotako neurriak sendotzen laguntzea.</p> <p>Pazienteen zuzeneko zaintzan parte hartzen duten profesionalentzako jarduerak egitea sustatzea, erorikoen prebentzioaz sentsibilizatzeko.</p> <p>Adierazleak:</p> <p>Urteko prebalentzia-azterketaren bidez hauteman diren eta Osanaia programa informatikoaren bidez deklaratu ez diren ultzeren ehunekoa.</p>	<p>0,93%</p>	<p>Se han realizado los protocolos:</p> <p>Protocolo de atención al Puerperio que contiene los procedimientos:</p> <p>Analgesia en Parto normal y Cesárea.</p> <p>Efectos adversos relacionados con la medicación.</p> <p>Anemia Puerperal.</p> <p>Información al alta – Signos de alerta y autocuidados de la madre y el R.N. (recién nacido).</p> <p>Seguridad en la atención del R.N. en los ámbitos de atención materno-infantil que contiene el procedimiento:</p> <p>Identificación y custodia del R.N.</p> <p>Protocolo de alimentación al Recién Nacido que contiene la atención al R.N. sano en el parto y puerperio.</p> <p>4.4.10. Seguridad del paciente en los servicios de Urgencias: Abordar la seguridad en las áreas de Urgencias, incluyendo los servicios de Urgencias Hospitalarias y de Atención Primaria.</p> <p>Establecer un plan de trabajo consensuado para desarrollar la estrategia definida.</p> <p>Considerar las ventajas de contar con referentes de seguridad en las áreas de urgencias.</p> <p>Indicador:</p> <p>Se ha conformado un grupo referente corporativo para esta línea. Se han consensuado las prioridades a abordar y se ha iniciado el trabajo de los diferentes subgrupos.</p> <p>4.4.11. Seguridad del paciente vinculada a los cuidados: Colaborar en la consolidación de las medidas recogidas en los documentos PEU-UPP Adi! (UPP –úlceras por presión) y Eroriko Ez .</p> <p>Estimular la realización de actividades dirigidas a los profesionales implicados en el cuidado directo de los pacientes para la sensibilización en la prevención de las caídas.</p> <p>Indicadores:</p> <p>Porcentaje de úlceras detectadas a través del estudio de prevalencia anual y no declaradas a través del programa informático Osanaia.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Akutuen ospitaleetan egon diren bitartean erorikoren bat izan duten eta erorikoa Osanaia programa informatikoaren bidez deklaratu zaien pazienteen ehunekoa (pediatriako pazienteenak salbu).</p> <p>4.4.12. Medikazioa emateari lotutako jardunbide egokiak: Ahotiko antikoagulatzaileak, insulina, zain barnetiko potasioa eta zitostatikoak erabiltzearen inguruko «jardunbide egokien» dokumentuak egitea eta zabaltzea.</p> <p>Egiten ari diren dokumentuak (ahotiko antikoagulatzaileak) bukatzea eta egindako dokumentuen berri ematea (insulinak eta zain barnetiko potasioa).</p> <p>Adierazlea:</p> <p>Zain barnetiko potasioa eta insulina erabiltzeko jardunbide egokiei buruzko dokumentuak amaitu dira. Ahotiko antikoagulatzaileei buruzkoa bukatzea falta da.</p> <p>4.4.13. Desnutrizio-arriskuan dauden ospitaleratutako pazienteeikiko jardunbide egokiak: Ospitaleratutako pazienteen artean desnutrizioa prebenitzeko protokolo bat egitea eta ezartzea.</p> <p>Diziplina anitzeko talde bat sortzea, lider kliniko eta arlo horretako adituz osatua, martxan jarri beharreko ekintzak adosteko, Gorlizko Ospitaleko esperientzia erreferentziatzat hartuta (paziente ospitaleratuen nutrizio-egoerari arreta emateko protokolo bat dauka).</p> <p>Adierazlea:</p> <p>Desnutrizioko baheketa bat egin zaien paziente ospitaleratuen ehunekoa.</p> <p>Lantaldearen hurbieko osaera.</p> <p>4.4.14. Eragindako gernu-inkontinentzia prebenitzeko jardunbide egokiak: Gernu-inkontinentziarako xurgatzaileak (GIX) oker erabiltzeak eragindako gernu-inkontinentzia ekiditea ospitalizazioan.</p> <p>Jarduera hori barne hartzen duten zerbitzu-erakundeen funtzionamendu-protokoloak berraztertzea eta gomendioak eskura dagoen ebidentziarik onenean oinarrituz egokitzea.</p> <p>Adierazlea:</p>	<p>0,82%</p>	<p>Porcentaje de pacientes que han sufrido caídas durante el ingreso hospitalario (excluyendo pacientes pediátricos) declaradas a través del programa informático Osanaia, en hospitalización de agudos.</p> <p>4.4.12. Buenas prácticas asociadas a la utilización de la medicación: Elaborar y difundir documentos de “buenas practicas” relativos a la utilización de Anticoagulantes orales, Insulinas, Potasio intravenoso y Citostáticos.</p> <p>Finalizar los documentos en desarrollo (Anticoagulantes orales) y difundir los documentos elaborados (Insulinas y Potasio intravenoso).</p> <p>Indicador:</p> <p>Finalizados los documentos de Recomendaciones de buenas prácticas en el uso de Potasio intravenoso e insulinas. Pendiente de finalizar el relativo a anticoagulación oral.</p> <p>4.4.13. Buenas prácticas en los pacientes hospitalizados en riesgo de desnutrición: Elaborar e implantar un protocolo de prevención de la desnutrición en pacientes hospitalizados.</p> <p>Crear un equipo multidisciplinar conformado por líderes clínicos y expertos en la materia donde se determinarán y consensuarán las acciones a desarrollar tomando como referencia la experiencia del Hospital de Gorliz que cuenta con un protocolo de atención al estado nutricional del paciente hospitalizado.</p> <p>Indicador:</p> <p>Porcentaje de pacientes ingresados a los que se les ha realizado cribado de desnutrición.</p> <p>Próxima conformación del grupo de trabajo.</p> <p>4.4.14. Buenas prácticas para la prevención de la incontinencia inducida: Evitar la incontinencia urinaria inducida por el uso inadecuado de absorbentes de incontinencia urinaria (AIU) durante la hospitalización.</p> <p>Revisar los protocolos de funcionamiento de las distintas organizaciones de servicios que incluyen esta práctica y adecuar las recomendaciones basándose en la mejor evidencia disponible.</p> <p>Indicador:</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Ospitaleratzean egoera funtzionala eta txiza egiteko behar duten laguntza zenbat pazienteri aztertu zaien.</p> <p>Lantaldearen hurbieko osaera.</p> <p><b>5. OSASUN SISTEMAKO PROFESIONALAK</b></p> <p>2018ko lehenengo sei hilekoan, Osakidetzako zerbitzu-erakundeen giza baliabideetako beharrak planifikatzeko azterketa-jarduketara batzuk egin dira.</p> <p>2018ko lehenengo sei hilekoan, «lanaren kalitatea hobetzea» helburu estrategikoarekin lotuta, hutsuneak betetzeko kontratazioen kudeaketa lehenetsi da, egiturazko plantillan okupazio-tasa handia izateko, eta kontratazio-beharrak korporatiboki estaltzeko mekanismo batzuk ezarri dira.</p> <p>Enpleguaren Atarian ezarritako funtzioak garatzen jarraitu dugu, baita Ataria osatzen duten eszenategietan hobekuntza berriak definitzen ere.</p> <p>OHSAS arautik ISOra igarotzen ari gara, arriskuen prebentzioko arau berrietara egokitzeko.</p> <p>Urte honetarako prestakuntza-plan korporatiboetan eta Zuzendaritza Nagusiaren planetan sartutako prestakuntza-ekintzak kudeatu dira, online eskaintza osoan gaztelaniazko eta euskarazko eskaintzak sekuentziatuta.</p> <p>Proiektu-arduradunekin eta antolaketako adituekin batera, online ikastaro berrien diseinu eta ekoizpen propioan parte hartzen ari gara, profesional guztientzako erantzun eraginkorra eta eskuragarriagoa emateko.</p> <p>Prestakuntza-ibilbideen ereduak garatzen eta beste kolektibo profesional batzuetara hedatzen jarraitzen dugu.</p> <p>Jakintza kudeatzeko eta gizarteratzeko tresna erabilgarriak hobetu eta egokitzeko eta teknologia berrien erabileran aurrera egiteko lanean ari gara.</p> <p>Emakumeen eta gizonen arteko integrazioa benetakoa eta eraginkorra izateko.</p>		<p>Porcentaje de pacientes a los que se ha realizado valoración de su situación funcional y de las ayudas que precisa para orinar al ingreso.</p> <p>Próxima conformación del grupo de trabajo.</p> <p><b>5. LOS PROFESIONALES DEL SISTEMA SANITARIO</b></p> <p>Durante el primer semestre de 2018 se han realizado algunas actuaciones orientadas a facilitar los análisis para la planificación de necesidades de Recursos Humanos en las organizaciones de servicios de Osakidetza.</p> <p>Durante el primer semestre de 2018, en relación con el objetivo estratégico de “mejorar la calidad del empleo” se ha priorizado la gestión de contratación mediante cobertura de vacantes, al objeto de mantener una alta tasa de ocupación de plantilla estructural, y se han establecido algunos mecanismos para que las necesidades de contratación se realicen corporativamente.</p> <p>Se ha continuado con el desarrollo de las funcionalidades implantadas en el Portal del Empleado así como definiendo nuevas mejoras en los distintos escenarios que integran el Portal.</p> <p>Se está pasando de norma OHSAS a normas ISO para adaptarse a las nuevas normas de prevención de riesgos.</p> <p>Se han gestionado las acciones formativas incluidas en los planes de formación corporativos y de la Dirección General para este año secuenciado la oferta en castellano y en euskara en toda la oferta online.</p> <p>Se está participando junto con responsables de proyectos y expertos de la Organización en el diseño y producción propia de nuevos cursos en formato online para dar una respuesta más eficiente y accesible para el conjunto de los/las profesionales.</p> <p>Se sigue con el desarrollo del modelo de itinerarios formativos, y su ampliación a otros colectivos profesionales.</p> <p>Se trabaja en la mejora y adecuación de las herramientas disponibles para dar soporte a la gestión y socialización del conocimiento ya existente y avanzar en el uso de las nuevas tecnologías.</p> <p>Se están realizando cursos relacionados con las políticas de integración real y efectiva entre mujeres y hombres.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p><b>5.1. Profesionalak Osakidetzarekin identifikatzea, parte-hartzea eta lidergo-eredu bat garatzea posible egingo duten erantzukizun partekatuko politika eta gardentasun-politika egitea.</b></p> <p>5.1.1. Barne-komunikazioa indartzea eta profesionalekin batera kontsulta eta erabakiak hartzeko prozesuak arintzea, kanal berrien erabileraren bitartez –Enpleguaren Ataria eta elkarlanerako tresnak–, gardentasun eta ardura partekaturako politikien alde eginez.</p> <p><b>Enpleguaren Ataria.</b></p> <p>Atariko edukiaren garapenarekin lotuta, bi eszenategi berri sartu dira Enpleguaren Atarian, Curriculum Vitae eta Lan-garapena aplikazioak, sarbide zuzenarekin.</p> <p>Zerbitzu-erakundeek (ZE) % 100ean lizentziak eta baimenak izapidetzeko funtzionalitatea aurkeztu da eta ZEen % 50ean prestakuntza-saioa egin da.</p> <p>Zerbitzu batzuetan ezarri da, ZEen % 45ean.</p> <p>Kontratazioaren kudeaketaren funtzionalitate berria definitu eta garatu da eta ZEen % 100ean aurkeztu.</p> <p>Prestakuntza-saioa ZEen % 50ean egin da.</p> <p>Pilotajea ZEen % 35ean hasi da.</p> <p>Kontratazioaren kudeaketaren funtzionalitateari buruzko txostenak definitu eta ezarri dira.</p> <p><b>Profesionalen gogobetetzearen ebaluazioa.</b></p> <p>2018ko lehenengo seihilekoan, inkesta Osakidetzako erakundeetan aplikatu da.</p> <p>Inkestak 18 erakunde eta 26.400 langile barne hartu ditu eta honako ezaugarri nagusi hauek ditu:</p> <p>Inkestako elementuak eguneratu dira, honako hauek barne hartuta: Hizkuntza-normalizazioa, Berdintasuna, Tresna berriak (Intranet, Enpleguaren Ataria, lankidetzatresnak, etab.), Laguntzaren Integrazioa, 2017-2020rako PEan jasotako balio korporatiboak, etab.</p>		<p><b>5.1. Practicar una política de transparencia y de corresponsabilidad que favorezca la identificación de los profesionales con Osakidetza, la participación y el desarrollo de un modelo de liderazgo.</b></p> <p>5.1.1. Potenciar la comunicación interna y agilizar la consulta y toma de decisión conjunta con los profesionales mediante la utilización de nuevos canales, Portal del empleado/a y herramientas colaborativas, favoreciendo las políticas de transparencia y corresponsabilidad.</p> <p><b>Portal del empleado/a.</b></p> <p>En relación con el desarrollo de los contenidos del Portal, se han incluido 2 nuevos escenarios en el Portal del Empleado, aplicaciones de Curriculum Vitae y Desarrollo Profesional, con acceso directo.</p> <p>Se ha presentado la funcionalidad de tramitación de licencias y permisos en el 100% de las OOSS, y se ha realizado la sesión formativa en el 50 % de las OOSS.</p> <p>Se ha iniciado la implantación en algunos servicios, en el 45% de las OOSS.</p> <p>Se ha definido y desarrollado la nueva funcionalidad de la gestión de la contratación, y se ha presentado en el 100% de las OOSS.</p> <p>Se ha realizado la sesión formativa en el 50% de las OOSS.</p> <p>Se ha iniciado el pilotaje en el 35% de las OOSS.</p> <p>Se han definido e implantado informes en la funcionalidad de la gestión de la contratación.</p> <p><b>Evaluación de la satisfacción de los profesionales.</b></p> <p>En el primer semestre de 2018, se ha realizado la aplicación de la encuesta en las organizaciones de Osakidetza.</p> <p>La encuesta ha abarcado a 18 Organizaciones y una plantilla de 26.400 trabajadores, siendo sus principales características las siguientes:</p> <p>Actualización de los ítems de la encuesta incluyendo; Hizkuntza-normalizazioa, Igualdad, Nuevas herramientas (Intranet, Portal del Empleado, herramientas colaborativas, etc.), Integración asistencial, Valores corporativos según PE 2017-2020, etc.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Identifikazio-esparruen egokitzapena, erakunde mota bakoitzaren arabera.</p> <p>Erakunde bakoitzean galdera espezifikoak sartzea.</p> <p>Datuak ustiatzen eta programa egiten ari gara, emaitzak erakundeetan zabaltzeko.</p> <p><b>Komunikazioa.</b></p> <p>Osakidetza zerbitzu publiko gisa identifikatu eta bertako kide sentitzeko kultura eta gardentasun eta gobernu onaren kultura indartzen laguntzea, intranet korporatiboarekin jarraituz eta indartuz eta zerbitzu-erakundeen gainerako intranetak abiatuz, lengoia arrunt eta ez-sexista erabiliz, euskararen erabilera sustatuz, funtzionamendueredu komun bat ezarri eta profesionalen arteko trukea ahalbidetzeko zerbitzuak emanez.</p> <p>% 50ekoa dela estimatzen da, intranet guztien kickoff egin delako (Intranet Korporatiboa ereduaz azken Zeen proiektuak hasi dira), Profesionalen Parte-hartze eta Implikazio zerbitzuan definitutako estrategiari jarraituz, eta aurreikusitakoak baino bi ZE gehiago erantsi dira (URIBE, ERRIOXA ARABA, EMERGENTZIAK, GORLIZ O. ETA STA. MARINA OSPITALEA). % 100ekoa sortzen ari diren intranet guztiak abiatuta egotean estimatuko da.</p> <p>BILBO BASURTU intraneta abiatzea eta helburua da TGEENZ intraneta 2018aren bukaerarako abiatzea da (gainerako ZEenak baino atzeratuago zeuden).</p> <p><b>Elkarlana.</b></p> <p>Osaguneko taldeen jardura eta jokabidea aztertzeke tresna bat ekoiztea, estatistika globalak erabiliz, ZEen arabera. Datu kualitatibo gehiago izatea lortu nahi da.</p> <p><b>Partaidetza.</b></p> <p>PARTE HARTUko 2. edizioko tailerra eginda eta 2018ko TOP5ak aukeratuta. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN bilera, 2018/07/06rako aurreikusia, ETA PUBLIKOA, ATZERATUTA (% 25 analisia eta kontrastea, % 45 TOP5 TAILERRA, % 30 ZUZENDARITZA BATZORDEA).</p>		<p>Adecuación de los ámbitos de identificación, por cada tipo de organización.</p> <p>Inclusión de preguntas específicas de cada organización.</p> <p>Se está realizando la explotación de los datos y elaborando el programa para la difusión de los resultados en las organizaciones.</p> <p><b>Comunicación.</b></p> <p>Colaborar en reforzar la cultura de identificación y pertenencia a Osakidetza como servicio público y la cultura de Transparencia y Buen Gobierno siguiendo y reforzando la Intranet Corporativa y el despliegue del resto de Intranets de las organizaciones de servicios, utilizando un lenguaje común y no sexista, potenciando el uso del euskera, adoptando un modelo funcional común y dotando de servicios que posibiliten el intercambio entre profesionales.</p> <p>Se considera un 50% porque ya se han realizado los kickoff de todas las intranets (se inician los proyectos de las últimas ooss en el modelo Intranet Corporativa) siguiendo la estrategia definida en el servicio de Participación e Implicación Profesionales y se añaden dos OOSS más de las previstas (URIBE, ERRIOXA ARABA, EMERGENTZIAK, H.GORLIZ Y H.STA MARINA). EL 100% se considera cuando hayan arrancado todas las intranets que se están fabricando.</p> <p>Arranque de la intranet BILBAO BASURTO y el objetivo es que la intranet de CVTTH se arranque para finales 2018 (habían quedado más ralentizadas con respecto al resto de OOSS).</p> <p><b>Colaboración.</b></p> <p>Puesta en Producción de una herramienta de análisis de actividad y comportamiento de los grupos de Osagune, con estadísticas globales y por OOSS. Se quiere llegar a evolucionar en cuanto a más datos cualitativos.</p> <p><b>Participación.</b></p> <p>Realizado el Taller 2 edición de PARTE HARTU y seleccionadas las TOP5 2018. APLAZADA la celebración del COMITÉ DIRECTOR previsto para 6/7/2018 y PUBLICO. (25% análisis y contraste, 45%TALLER TOP5, 30%COMITE DIRECTOR).</p>



HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. edizioko TOP5 proiektuen egoera (aukeratutako 5 proiektuetatik 2 ez dira asko aurreratu).</p> <p>2018/05/25etik indarrean dagoen DBEOak (Europako datuak babesteari buruzko araudi berria) alderdi hori sakonago aztertzea eta abiatzea atzeratzea eragin du.</p> <p><b>Aitorpen.</b></p> <p>ZURI ESKER proiektua berraktibatzea, profesionalentzako aitorpen-dinamika gisa, eguneroko lanean islatzen diren Osakidetzaren balioekin bat datozen jarrerak eta jokabideak gorapatuz.</p> <p>Egiteke.</p> <p>5.1.2. Taldeak eta pertsonak kudeatzea, partaidetzako eta erantzukidetasuneko eredu arabera, taldeen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko, prozesuak kudeatu, analizatu, birdiseinatu eta automatizatzeke eredu berriak erabiliz.</p> <p>5.1.3. Erakundea eraldatzen laguntzea, pertsonak oinarri dituzten proiektuen garapena sustatuz.</p> <p><b>Lidergo-ereduaren hedapena.</b></p> <p>Osakidetzako lidergo korporatiboko eredia bi zerbitzu-erakundetean ezarri da (Donostialdea ESI eta Barakaldo-Sestao ESI) eta horietan ebaluazio bat egin da, 360 graduko metodologia erabiliz.</p> <p><b>Giza Faktorea proiektuaren ezarpena.</b></p> <p>Urtarrilaren 16an, Giza Faktorearen Garapen Proiektua abiatu zen Tolosaldea ESlan.</p> <p>Giza Faktorearen Garapen Proiektua esku-hartze programa bat da. Horren helburu orokorra pazientea ardatz duen arreta-eredu bateranzko trantsizioa ahalbidetzeko harreman-kultura bat sustatzea da. Horretarako, hiru norabidetan ari gara lanean:</p> <p>Taldeen bidezko aldaketaren kudeaketa, «balioen berrikuntza»ren bidez.</p> <p>Komunikazio eraginkorra, neurozientziako azken aurrerapenetako oinarritutako harreman-tekniken bidez.</p> <p>Lidergoa, proiektuak iraun dezan.</p>		<p>Situación proyectos TOP5 1ª edición (2 de los 5 proyectos seleccionados no han tenido mucho avance).</p> <p>La RGPD (última normativa sobre protección de datos europea) vigente desde el 25/05/2018, ha hecho que se revise con mayor profundidad este aspecto, retrasando el arranque.</p> <p><b>Reconocimiento.</b></p> <p>Reactivar el proyecto de ZURI ESKER como dinámica de reconocimiento para profesionales a través de realizar actitudes y comportamientos alineados con los valores de Osakidetza y plasmados en el trabajo de cada día.</p> <p>Pendiente de realización.</p> <p>5.1.2. Gestionar equipos y personas en base a modelos participativos y de corresponsabilidad que permitan mejorar la eficacia y la eficiencia de los equipos, incorporando nuevos modelos de gestión, análisis, rediseño y automatización de procesos.</p> <p>5.1.3. Contribuir a la transformación de la organización impulsando el desarrollo de proyectos centrados en las personas.</p> <p><b>Despliegue del modelo de liderazgo.</b></p> <p>El modelo de liderazgo corporativo de Osakidetza se ha desplegado en dos organizaciones de servicios (OSI Donostialdea y OSI Barakaldo-Sestao) en las que se ha realizado una evaluación con metodología 360.</p> <p><b>Implantación del proyecto Factor Humano.</b></p> <p>El 16 de enero se inició el Proyecto de Desarrollo del Factor Humano en la OSI Tolosaldea.</p> <p>El Proyecto de Desarrollo del Factor Humano es un programa de intervención cuyo objetivo general es fomentar una cultura relacional que facilite la transición hacia un modelo de atención centrado en el paciente. Para ello se está trabajando en una triple dirección:</p> <p>La gestión del cambio a través de los equipos, mediante la “innovación en valores”.</p> <p>La comunicación efectiva, mediante técnicas relacionales basadas en los últimos avances en neurociencia.</p> <p>El liderazgo, para el mantenimiento en el tiempo del proyecto.</p>

<b>HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA</b>	<b>MAGNITUDEA MAGNITUD</b>	<b>OBJETIVO ACCION INDICADOR</b>
<p>Otsailaren 20an, Proiektuaren Kudeaketa Taldea sortu zen, ESiko zuzendaritza-taldeko kidez, LMAUBz eta hainbat kategoriatako profesionalen osatua.</p> <p>Ekainean, proiektua bost LMAUetako profesionalen aurkeztu zitzaizkien, eta taldeekin lehenengo saio gidatua egin da, balioak eta horiekin lotutako jokabideak definitzeko eta horiek «Tolosaldea ESiko arreta-eredua» gisa erabiliko den dokumentu batera eramango dira.</p> <p>Horrez gain, Jakinsarea campusa ireki da, proiektu horretarako espazio bat. Bertan, Tolosaldea2018ko profesionalen proiektuaren aurrerapena partekatu ahal izango dute, eta saioen artean berau aberasten lagundu.</p> <p>5.1.4. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta genero-ikuspegia Erakundearen jardueran guztietan integrazteko ekintzak gauzatzea.</p> <p>Berdintasun Zerbitzu Korporatiboa Administrazio Kontseiluak 2017ko azaroaren 9an hala erabakita sortu zen; orain, kidez hornitzeko prozedura martxan dago.</p> <p>Joan den urtarrilean, Berdintasun Batzordea eratu zen. Bere funtzioetako batzuk lehentasunezko helburuak definitzea eta Osakidetzako Berdintasun Plana egiteko jarduerak diseinatzea daude. Martxoan eta apirilean, prestakuntza-jarduerak batzuk egin ziren. Horietan, Batzordeak berdintasuna bultzatzeko lehentasunezko arloak zehaztu zituen. 2018ko bigarren seihilekoan, neurri zehatzak finkatzen eta Berdintasun Planean egituratzen joango dira.</p> <p>Osakidetzako Zuzendaritzak EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planeko gobernu onaren inguruko neurri eta jarduketarako erantzuteko lehentasun estrategikoak zehaztu ditu. Horiek, Osakidetzako Berdintasun Planean sartuta, genero-ikuspegia erakundearen esparru guztietan barneratzea bideratzeko balioko dute.</p> <p><b>5.2. Osakidetzako giza baliabideen plangintzan eta antolamenduan aurrera egitea, antolakuntza-premia berrien arabera.</b></p> <p>5.2.1- Langile-taldearen aurreikuspen-plan baten analisia eta azterketa, beharretan oinarritua, metodologia espezifikoak erabiliz.</p>		<p>El 20 de febrero se constituyó el Equipo Gestor del Proyecto formado por personas del equipo directivo de la OSI, JUAPs y profesionales de distintas categorías.</p> <p>En el mes de junio se ha realizado la presentación del proyecto a los/las profesionales de las cinco UAP y se ha realizado la primera sesión dirigida con los equipos para la definición de los valores y de sus comportamientos asociados que se trasladarán a un documento que sirva como “modelo de atención de la OSI Tolosaldea”.</p> <p>Se ha abierto también en el Campus Jakinsarea un espacio para este proyecto en el que profesionales de la OSI Tolosaldea puedan compartir el avance del proyecto y contribuir entre sesiones al enriquecimiento del mismo.</p> <p>5.1.4. Realizar actuaciones para impulsar la igualdad entre mujeres y hombres y para integrar la perspectiva de género en todos los ámbitos de la actividad de la Organización.</p> <p>El Servicio Corporativo de Igualdad se creó por Acuerdo del Consejo de Administración del 9 de noviembre de 2017, en estos momentos está en curso el procedimiento para su dotación de personal.</p> <p>El pasado mes de enero se constituyó la Comisión de Igualdad, que tiene entre sus funciones la definición de objetivos prioritarios y el diseño de actuaciones para la elaboración del Plan para la Igualdad de Osakidetzak. Durante los meses de marzo y abril se realizaron unas sesiones de formación en las que la Comisión determinó las áreas prioritarias para el impulso de la igualdad. A lo largo del segundo semestre de 2018 se irán perfilando las medidas concretas y estructurándolas en el Plan para la Igualdad.</p> <p>La Dirección de Osakidetzak ha determinado las prioridades estratégicas para responder a las medidas de Buen Gobierno y Ejes de Actuación del VII Plan para la Igualdad de Hombres y Mujeres de la CAE, que incorporadas al Plan para la igualdad de Osakidetzak servirán para canalizar la integración de la perspectiva de género en todos los ámbitos de la organización.</p> <p><b>5.2. Avanzar en la planificación y ordenación de los recursos humanos de Osakidetzak de acuerdo con las nuevas necesidades organizativas.</b></p> <p>5.2.1- Desarrollar un plan previsional de plantillas basado en las necesidades mediante la utilización de metodologías específicas.</p>

<b>HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA</b>	<b>MAGNITUDEA MAGNITUD</b>	<b>OBJETIVO ACCION INDICADOR</b>
<p><b>Antolakuntzako beharrian berriak.</b></p> <p>Barne-arauak garatzea, langileen beharrak estaltzeko eta giza baliabideak kudeatzeko sistema lege- eta kudeaketa-eskakizunetara egokitzeko irizpide korporatiboak finkatzeko (Lehen Mailako Arretako autokontzertazio-jarraibidea, Lehen Mailako Arretako fakultatiboen izendapen egonkor malgua...).</p> <p>Kontratazioaren kudeaketa korporatiboa eta gainerako kategorietako behin-behinekotasunetarako aldizkako eta ohiko kontratazio-eskaintzak garatzea, bitarteko telematikoen bidez.</p> <p><b>Zerbitzu-erakundeetako giza baliabideak planifikatzea, antolakuntza-beharrianen arabera.</b></p> <p>Titulazio- eta egokitzapen-behar berriak hauteman eta identifikatu dira, eta Lanpostu Funtzionalen Dekretuaren berrikuspenean jorratu eta kontuan hartu beharko dira.</p> <p>Zerbitzu-erakundeek identifikatutako egiturazko beharrak aztertzen ari dira.</p> <p>Era berean, Eibarko ospitale berria irekitzeak eragingo dituen lanpostu-beharrak hautemateko lanean ari gara.</p> <p><b>Zerbitzu-erakundeetako antolaketa-egituren berrikuspena hastea, zentroen arteko analisi konparatiboak ahalbidetu eta homogeneizatzeko abiapuntu gisa.</b></p> <p>Zerbitzu-erakundeek sortutako gaur egungo antolaketa-egitura guztiak identifikatu dira, eta zerbitzu-erakundeei helarazteko asmoa dago, bateratu eta egitura homogeneo estandar bat sortzeko, analisiak egin ahal izateko eta hornidura-prozesuetarako informazio-iturri izan dadin.</p> <p><b>Informazioa aztertu eta ematea, giza baliabideen beharrak planifikatzeko.</b></p> <p>Giza baliabideetako agente-koadro korporatiboan (plantillaren esparrua) definitutako txostenetan jasotako adierazleak berrikusten eta hobetzen jarraitzen dugu, aldizka ustiatzeko.</p>		<p><b>Nuevas necesidades organizativas.</b></p> <p>Desarrollo de normas internas en orden al establecimiento de criterios corporativos para la cobertura de necesidades de personal y adecuación del sistema de gestión de RRHH a los requerimientos legales y de gestión (Instrucción de autoconcertación en primaria, Nombramiento estable y flexible de facultativo de atención primaria...).</p> <p>Gestión corporativa de la contratación y desarrollo de ofertas de contratación periódicas y frecuentes para interinidades del resto de categorías por medios telemáticos.</p> <p><b>Planificar los Recursos Humanos de las Organizaciones de servicios de acuerdo a las necesidades organizativas.</b></p> <p>Se han detectado e identificado nuevas necesidades de titulación y adecuaciones necesarias que tendrán que ser abordadas y consideradas en la revisión del Decreto de Puestos Funcionales.</p> <p>Se está realizando un análisis de necesidades estructurales identificadas por las Organizaciones de Servicios.</p> <p>Al mismo tiempo se han definido las necesidades de plazas que derivarán de la apertura del nuevo hospital de Eibar.</p> <p><b>Iniciar la revisión de las estructuras organizativas de las organizaciones de servicios, como punto de partida para homogeneizar y posibilitar los análisis comparativos inter-centros.</b></p> <p>Se han identificado todas las estructuras organizativas generadas por las distintas organizaciones de servicios a fecha actual, y se ha previsto su remisión a las organizaciones de servicios para la unificación y creación de una estructura estándar y homogénea que facilite los análisis. y sirva como fuente de información para los procesos de provisión.</p> <p><b>Analizar y reportar información de cara a la planificación de necesidades de RRHH.</b></p> <p>Se continúan revisando y mejorando los indicadores recogidos en los informes definidos en el cuadro de mando corporativo de RRHH (ámbito de plantilla) para su explotación periódica.</p>

<b>HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA</b>	<b>MAGNITUDEA MAGNITUD</b>	<b>OBJETIVO ACCION INDICADOR</b>
<p>Adierazleen jarraipena eta analisia egiten jarraitzen dugu, eguneko kargak barneratuta, datuen ustiapeneko eraginkortasuna hobetzeko.</p> <p>Giza Baliabideen Plangintzaren esparruan adierazle berri bat definitu eta 2018ko Kontratu Programan sartu da –Bottom up/Top down atalean–, eta 2 puntu ditu atal horri dagokion 15 puntuko kopuru osotik.</p> <p>5.2.2. Hautaketa- eta hornidura-prozesuetan etengabe hobetzeko jarduerak planifikatzea, prozesuon eraginkortasuna eta efizientzia hobetzera bideratuko direnak eta kalitatea kudeatzeko sistemen hobekuntza-zikloari erantzungo diotenak.</p> <p><b>Aldi baterako kontratazioa.</b></p> <p>Behin-behineko kontratazioarako erabakiaren eta aldi baterako kontratazioaren kudeaketarako testu-zirriborro bat egitea.</p> <p>Lehenengo seihilekoan, hutsuneak betetzeko kontratazioa bultzatu da, enpleguaren kalitatea hobetzeko eta Osakidetzaren benetako beharretara egokitzen diren kontratazio-politikak bultzatzeko. Horrek, aldi berean, plantilla sendotzea ahalbidetzen du, betiere behin-behineko kontratazioaren arloko indarreko araudia betetzen bada.</p> <p>Era berean, hainbat kategoriatarako kontratazio masiboak egiteko prozedurak arindu dira, eskaintza telematikoak sistematizatuz. Hala, 1.367 bitarteko langile kontratatu dira, hutsune hauek betetzeko:</p> <p>Beste alde batetik, enpleguaren kalitatea hobetzeko helburu berari erantzunez, eskaintza telematikoetan «kontratazio egonkor malgua» modalitate berria sartu da, Lehen Mailako Arretako fakultatiboari zuzendua. Hala, 2018ko lehenengo seihilekoan 211 kontratu egonkor malgu esleitu dira.</p> <p><b>Kontratazio-zerrendak egitea eta eguneratzea:</b></p> <p>2014ko kontratazio-zerrendak eguneratu eta argitaratu dira (2011ko LEPetik eratorritako kategorietako indarreko zerrendak), alegatutako eta frogatutako hizkuntza-profilen eta Osakidetzan 2017ko abenduaren 31ra arte emandako zerbitzuen balorazioa barne, inskribatutako 64.155 pertsoneri dagozkienak.</p>		<p>Se continúa con el seguimiento y análisis de los indicadores, habiendo incorporado cargas diarias para mejorar la eficacia en la explotación de datos.</p> <p>Se ha definido e incluido en el Contrato Programa 2018, un nuevo indicador en el ámbito de Planificación de Recursos Humanos dentro del apartado –Bottom up /Top down–, con una puntuación de 2 puntos respecto al total de 15 puntos que corresponde a este apartado.</p> <p>5.2.2. Planificar actuaciones de mejora continua en los procesos de selección y provisión que se orienten a mejorar la eficacia y eficiencia de dichos procesos y que respondan al ciclo de mejora de los sistemas de gestión de calidad.</p> <p><b>Contratación Temporal.</b></p> <p>Elaboración de un texto borrador de Acuerdo de Contratación Temporal y normas de gestión de la contratación temporal.</p> <p>Se ha impulsado a lo largo del primer semestre la contratación orientada a cobertura de vacantes, al objeto de mejorar la calidad del empleo e impulsar políticas de contratación que se ajusten a las necesidades reales de Osakidetza, posibilitando, a su vez, la consolidación del personal siempre y cuando se ajuste a la normativa vigente en materia de Contratación Temporal.</p> <p>Asimismo, se han agilizado los procedimientos de cobertura mediante la sistematización de ofertas telemáticas de contratación en categorías masivas, habiéndose asignado 1.367 interinidades.</p> <p>Por otra parte, y en respuesta al mismo objetivo de mejora de la calidad en el empleo, se han incluido en las ofertas telemáticas la nueva modalidad de contratación “estable y flexible” dirigidas a personal facultativo de atención primaria. Así, se han asignado a lo largo del primer semestre del 2018, 211 contratos estables y flexibles.</p> <p><b>Elaboración y actualización de Listas de contratación:</b></p> <p>Se han actualizado y publicado las listas de contratación 2014 (listas vigentes correspondientes a categorías derivadas de OPE 2011), incluyéndose la valoración de los perfiles lingüísticos alegados y acreditados y de los servicios prestados en Osakidetza hasta el 31 de diciembre de 2017, correspondientes a las 64.155 personas inscritas.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
